

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 3010

*IRAGARKIA, 2023ko ekainaren 14koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira Ondare Da, S.L.U. enpresak Gasteizen sustatzen dituen proiektu hauek: Alaves-Universidad Euneiz Master Plana, Alaves-Residencia/Hotel Master Plana eta Alaves-Futbol-zelaiak Master Plana.*

Ondare Da, S.L.U. enpresak sustatzen dituen Alaves-Universidad Euneiz Master Plana, Alaves-Residencia/Hotel Master Plana eta Alaves-Futbol-zelaiak Master Plana izeneko proiektu horiek ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura bete behar dute, horrela arautzen baita Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean.

Proiektu horiek Vitoria-Gasteizko Udalari aurkeztu beharko zaion jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren mende daude.

Horrela, bada, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, jendaurrean jartzen dira honako proiektu hauek: Alaves-Universidad Euneiz Master Plana, Alaves-Residencia/Hotel Master Plana, Alaves-Futbol-zelaiak Master Plana eta horien ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Horren berri ematen da guztiek jakin dezaten, eta dokumentazioa aztertzeko aukera izan dezaten Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteiz, Donostia kalea 1) edo honako helbide honetan: [https://www.euskadi.eus/jendeaurreko\\_erakustaldia/eiao-00127/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/jendeaurreko_erakustaldia/eiao-00127/web01-tramite/eu/). Horrela, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, 30 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 14a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.